

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

EDARIAK

Red Bull, arriskutsua ote?

HEGO EUSKAL HERRIKO telebistetan makina bat aldiz eman dituzte Red Bull edariaren iragarkiak. Frantziar iragan uztailearen 15ean baimendu dute produktu horren salmenta, nahiz eta hainbat erakunde publikok aurkako iritzia eman. Frantziako ekonomia ministroak maiztzean sinatutako onarpenak osasun ministroaren haserrea eragin du, izan ere.

1996. urtean CSHPF erakunde publiko frantziarrak Red Bullen aurkako txostena idatzi zuen, edariak dituen taurina eta D-glukuronolaktona (D-g) substantziak zirela eta. 1999an, SCF Europar Batasuneko erakundeak bere egin zuen CSHPFk hiru urte lehenago idatzitako txostena. Red Bullek



Publizitate deigarria egitea gustuko du Red Bullek.

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Zerbaiterako balio al dute antidepressiboek?

MUNDUAN PROZAC HARTZEN DUTEN 40 milioi pertsonak oker daudela onartzea kosta egiten da, baina Britainia Handian egindako ikerketaren arabera, horietako gehienek botikarekin duten hobekuntza ez litzateke botikak eragindakoa izango, bere depresioaren kontra zerbait hartzen ari direla jakitearen eragin psikologikoaren ondoriozkoa baizik.

Hull-eko Unibertsitateko talde batek 47 saiakuntza kliniko aztertu ditu, bai konpainia farmazeutikoek argitaratutako datuak eta baita kaleratu gabeko beste hainbat datu ere kontuan hartuz (azkeneko horiek eskuratzeko epaitegiara jo behar izan zuten ikertzaileek, Informazio Askatasunaren Legea oinarri hartuta).

Ikerketak dioenez, antidepressibo belaunaldi berriak –horien artean daude Prozac eta Seroxat botikak– depresio arin eta moderatuetan duten eragina plazeboaren antzekoa da, hau da, berez ez dute inolako ekintza terapeutikorik. Egoera larriagoetan ere, botika horien eragina txikia izango litzateke, zalantzarik ez esateagatik. Horrek esan nahi du depresioak jota dagoen jendeak tratamendu kimikorik gabe hobera egin dezakeela, ikerketaren arduradun Irving Krisch irakaslearen hitzetan. Krischek gehitu duenez, emaitzak ikusita ez dirudi oso arrazoizkoa depresioaren kontrako botikak errezetatzeak,

salbu kasu larrietan eta bestelako tratamenduek funtzionatzen ez badute.

Laborategi farmazeutikoak, noski, berehala mintzatu dira ikerketaren kontra. GlaxoSmithKline –Seroxat botika fabrikatzen du– eta Eli Lilly –Prozac-en fabrikatzailea– konpainia erraldoiek diotenez, eskura zegoen informazioaren parte bat besterik ez omen da erabili ikerketarako, eta esperientzia zientifiko eta medikoak ondotxo frogatu du antidepressiboak eraginkorrak direla. Borroka –ekonomikoa batez ere– hasi besterik ez da egin.

Erresuma Batuko Osasun Agintaritzak beste metodo batzuk saiatzeko gomendatzen die bertako medikuei, botika antidepressiboak errezetatzen hasi aurretik. Hori aurrera eramanez gero, galera ederrak izango lituzkete gaur egun hainbeste saltzen diren botika horien fabrikatzaileek.

Ikerketak zalantzan jarri du Prozac eta abarren balioa.



arestian aipatu substantziak elikagai normal batek baino ia 500 aldiz gehiago ditu, eta ondorioak guztiz ongi ezagutzen ez badira ere, jakina da D-g konposatuak giltzurrunetan eragin kaltegarriak dituela, eta taurinak hiperaktibitatea sortzen duela. Arra-toiek, adibidez, beren burua mutilatzen dute taurina hartuta.

2006. urtean azterketa batek adierazi zuenez, taurinak alkoholaren eragina gutxitzen du, hiperaktibitatea handituz. Beraz, mozkor gau batean edari egokitzat har daiteke, benetako ondorioak neurtu gabe. **I**



Roselyne Bachelot osasun ministroak ez du begi onez ikusten Red Bull saldu ahal izatea.

ZOOLOGIA

Arrain hizlaria

ARRAIN BATZUEK, igeri-puxikaren bidez, soinuak emititzen dituzte gorte egiteko edo beren burua babesteko. *Science* aldizkarian argitara emandako artikulu batean adierazten denez, arrain apoak –edo *batrachoididae*– soinuak emititzeko duten garun-mekanismoa oso antzinakoa da.



Argazkikoa bezalako arrain apoek beren igeri-puxika bibratu araziz igortzen dituzte soinuak.

ma horrek antz handia duela orain 400 milioi urteko hezurdunek soinuak emititzeko erabiltzen zutenarekin. **I**

Arrain apoek gas-poltza dute flotagarritasuna ziurtatzeko, eta hura bibratu araziz emititzen dituzte soinuak. Garunean duten neurona zirkuituaren bidez bibrazioen erritmoa eta totoa erregulatzen dituzte. Badirudi sistema horrek antz handia duela orain 400 milioi urteko hezurdunek soinuak emititzeko erabiltzen zutenarekin. **I**

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Marrubien erregea

VERSAILLESGO PROBESTU ZENAREN seme Antoine Nicolas Duchesne (1747-1827) agronomo eta botanikariaren eta bere jatorri asiarraren ohoretan du sasi-marrubiak *Duchesnea indica* izena. Lagun hau ez zen, ez, edozein! Erregearen baratzetako zuzendari Nollin abadearekin hara eta hona landare buxkan ibiltzen zen eta Frantziako ikastetxe ezagunenetako irakasle izan zen. Marrubiek, baina, txora-txora eginda zeukaten.

Hamazazpi urte bete gabe, 1764ko San Fermin bezperan Luis XV.a erregea zenaren aurrera berak ondutako marrubi aiez betetako landarea zeraman lorontzi batekin azaldu zen; errege txolinak marrubiak dastatu, lehenaz gain laineza hartu eta bere mahaia hornitzen zuen baratzetan sail ederra landatzeko eta Trianongo landaretegian mundu guztiko marrubiak biltzeko agindu zion. Baita egin ere! Bilduma izugarria osatu zuen han. Garaiko puntako botanikariarekin harreman estuak izan zituen, tartean Linneus ezaguna, egundaino landareen erreinua sailkatzeko erabiltzen dugun sistemaren sortzailea. Harreman haiei esker eraiki ahal izan zuen marrubien bilakaeraren historia.

Hemeretzi urte ziztrinekin, marrubi jendeari buruzko liburu bat idatzi eta argitara eman zuen, *Histoire naturelle des fraisières contenant les vues d'économie réunies à la botanique et suivie de remarques particulières sur plusieurs points qui ont rapport à l'histoire naturelle générale* (Paris, 1766). Marrubien historiaz sekula idatzi den izti edo tratatu adituena eta osoena. Liburuaren lehen atalean espezie bakoitzaren azalpen zehatzak, Europan noiz eta nola sartu zen eta bere laborantza eta zabalkundearen historia, loratze eta fruitutzearen oharrak, espezie bakoitzaren gaineko eguraldiaren eraginak eta botanikan sailkapena eta sistematizatzea amets hutsak ziren garai hartarako bereziki harrigarria zena, marrubien bilakaeraren historia osoa –zaharrenak, gazteenak, bakoitzaren jatorria, hibridazioak...– zuhaitz genealogiko batean zehatz-mehatz azaldu zuen. Liburuaren bigarren atalean marrubien laborantza nola gauzatu azaltzen du: ongarraketak, ugalketa, fruituen ontzea nola aurreratu edo atzertzea... Geroztik inor ez da lan horri gaina hartzera ausartu...

Azpian hartu, 1789ko iraultzak hartu zuen. Errege usain handiegia ibiliko zuen eta zientzian zuen ospea izan ez balu bertan akabatuko omen zuten.



Antoine Nicholas Duchesne.

ideia batetik errealitatera



web garapeak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16